

KILOMETROAK 2002

2002ko Kilometroak jaia ere urriaren 6an ospatu zen eta *Elkarren Behar*ean izan zuen leloa. Mezu honek, gure Ikastolaren betiko ezaugarriari eutsiz, gauzak aurrera atera ahal izateko auzolanak duen garrantziaz ohartarazi nahi izan gintuen. Bai Urretxu-Zumarraga Ikastolak berak eta baita euskalgintzak ere guztion parte hartzea behar zuela aldarrikatu zen. Halaber, Euskal Eskola eraikitzeke gure herrietako eskola eredu guztien arteko elkarlanaren beharra azpimarratu zen.

XXI. mendean sartuta, gure Ikastolak teknologia berrien munduan murgildu beharra zuen, eta horretarako bideratu zen KMK jaietan lortutako dirua: eraikuntzak zaharberitu eta teknologia berrietan inbertsioak egiteko.

Antolakuntzarako hamasei batzorde sortu ziren ikastolaren barruan, eta hiru pertsona aritu ziren lanean liberatuta: Igor Elortza (koordinatzaile nagusia), Josu Aztiria (ekonomia arduraduna) eta Mari Jose Beloki (KMK dendaren arduraduna). Tan-talde bakoitzak gai baten ardura zuen: Arropa salmenta, Tonbola, Ekonomia, Trafikoa, Txosnak, Gaztedia, Segurtasuna, Zirkuitoa, Muntaia, Aldizkaria, Kultura, Giza baliabideak, Komunikazioa, Osasuna, Protokoloa, Garbitasuna.

Batzorde hauetan aurrez egindako lanari esker eta egunean bertan batu zitzaizkien gainerako lagunen ahaleginari esker, jai borobila izan zen 2002ko urriaren 6koa ere. Goiza lainotuta esnatu bazen ere, eguzkitsu joan zen eguna eta milaka euskaltzale (125.000 inguru) batzea lortu zuen.

Urtean zehar egindako ekitaldiak.-

* Abendua.- Aurkezpen ekitaldia egin zen Ederrena pilotalekuan. Logoa eta lema ezagutzera ematearekin batera, jantziak erakusteko moda desfilea egin zen. Bertan, kirol eta kultur munduko hainbat herritarekin hartu zuten parte, ikasle, irakasle eta gurasoekin batera. Bestalde, Gabon egunean, Olentzerori Eskutitza ekimena burutu zuten kantu errondan parte hartu zuten haurrek.

* Maiatza.- Bertso-trama, txotx festa, gastronomia lehiaketa eta Txan Magoaren ikuskizuna.

* Ekaina.- Eskolarteko Bertso Txapelketaren finala jokatu zen Beloki pilotalekuan. Horrez gain, Haurren Eguna ospatu zen eta 'Oroimenari Kantari' ikuskizuna eskaini zuten herriko talde ezberdinek Ederrena pilotalekuan.

* Iraila eta urria.- Ikastolari buruzko bi argazki erakusketa egin ziren: batean, ikastolako ikasleek birziklatutako materialak erabiliz ordura arteko Kmk festa guztietako logoak egon ziren ikusgai; bestean, Ikastolako argazki, diapositiba eta bideoak.

Kilometro eguneko ekitaldiak.- Haur, gazte zein helduei zuzendutako hamaika ekitaldi izan ziren egun osoan zehar: pailazoaren emanaldiak, txotxongiloak, txiste kontalariak, bertso saioak, herri kirolak, goming-a eta abar. Orduko musika talde nabarmenen kontzertuak ere izan ziren: Etzakit, Bide Ertzean, Alaitz eta Maider, Karidadeko Benta, Tapia eta Leturia, Sen, Legen Beltza, Hira, Kuraia, Trikizio..

Ibilbidea.- Kilometroen historian lehen aldiz bi ibilbide egon ziren: luzea (9.457 km) eta motza (7.051). Lehen gunea Ikastolan zegoen eta handik zirkuitu luzea Santa Barbarara igotzen zen. Handik Kalebarren-Areizagara jeitsi eta Piedad kalea pasa ondoren, Antiora igotzen zen Elizkaletik. Eitzatik Zumarragara jeitsi, Urdaneta, Filipinar Uharteak eta Jai-Alai kaleak pasa eta bidegorritik Ikastolara itzultzen zen. Bederatzi gunek egon ziren: Ikastola, Erratzu, Santa Barbara, Etxaburu, Areizaga-Kalebarren, Trintxera, Antio eta Lizeoa.

Etorritako jende kopua.- 125.000 lagun